


# POPULAZIOA

## ❖ POPULAZIOAREN BANAKETA:

Europar Batasunean 500 miloi (%9 *mundu mailarekiko*) biztanle daude, Europa osoan berriz 700 miloi (%13 *mundu mailarekiko*). Asko ematen duen arren Europako populazioa behera doa, azken aldian %, 2-koa izan da, migrazioak kontuan izanda, hau da, 0-koa.

Europako biztanleriaren gehiengoa Errusian bizi da, baina Europar Batasunaren biztanle gehiena, bi heren hain zuzen ere Frantzia, Alemania, Italia eta Bretania Handian. Hau da Europako populazioaren banaketa kantitateak kontuan izanda.

- **100 milioi:** Errusia
- **80 milioi:** Alemania eta Turkia (*nahiz eta ez dagoen oso argia Europa den*)
- **60 milioi:** Italia, Bretania Handia eta Frantzia
- **40 milioi:** Espainia eta Ukraina
- **30 milioi:** Polonia
- **20 milioi:** Errumania
- **16-17 milioi:** Holanda
- **12-9 milioi:** Belgika, Bielorrusia, Suezia, Portugal, Grezia, Austria, Serbia, Hungria eta Bulgaria
- **5 milioitik behera:** Letonia, Estonia, Lituania, Eslovenia, Eslovakia, Noruega, Finlandia, Irlanda, Txekia eta Danimarka.



## ❖ DENTSITATEA:

Europar Batasunean 140biz/km<sup>2</sup>, eta ez da ematen hutsune handirik Ipar latitudetan izan ezik (*Belgika, Holanda...*).

Europa zentru (*ekonomikoki pisu gehiago, populazioaren dinamismoa hemen dago*) eta periferian (*diru gutxiagoko zonaldeak, industriadunak*) dago banatua. Hala ere Europa ardatz desberdinetan banatzen da:

1. **Europako Banana (Milan-Manchester):** Alemaniaren zati bat hartuko du baita ere. Hemen daude zonalde altuenak, eta ia denak 400 miloi biztanle baino gehiagokoak dira. Zerbitzu eta industria asko (*aireportuak, portuak, multinazionalak, autopistak...*) hemen aurkitzen dira beraz bertako errenta altua izango da, batez ere Londres, Alemani eta Po baiaran.



2. **Mediterranean ardatza (Erroma- Valentzia):** Toulouse eta Katalunia sartzen dira barnean baita ere. Zonalde hauek 200 miloi biztanle baino gehiago dituzte, hiri handiak dira baina ez daude hain populatuak. Dinamismo handia ematen da, bai hazkunde ekonomiko zein sozial, turismo eta zerbitzuen eraginez.
3. **Ardatz Atlantikoa (Atlantikoko kosta):** Belfast, Liverpool, Dublin, Cardiff, Brest, Nantes, Breda eta Kantabriatik Lisboara. 100 miloi biztanletik gorako zonaldeak dira baina hauek hutsune asko izaten dituzte. Industria zaharreko hiriak zirenak, portu eta mina garrantzitsuak izan dituztenak azken finean; orain berriz zerbitzuak eskaintzen dituztenak dira jasandako krisi gogorragatik.
4. **Basamortuaren diagonal (Parisetik Lisboara, barrualdetik):** Frantziar eta Espainiako mesetak hartzen ditu, horregatik dentsitate baxuenak daude hemen, 50 milioitik beherakoak batzuk beste asko 10 milioitik beherakoak. Mesetak hustu egin dira eta bertako biztanleak populazioa gehiagoko zonaldeetara joan dira.
5. **Ekialdeko hiri industrialaren ardatza:** Alemaniaren ekialdeko hegoaldea, Polonia, Sudeteen iparra eta hegoa, Txekia... Industrializazio zaharreko hiriak dira baina harresia erori eta gero multinazionalak sartuko dira eta zerbitzu eta industriak bereganatuko dituzte. Haien populazioa 200 milioitik gorakoa da.
6. **Danubioko korredorea:** Viena, Budapest, Bratislava... Itsaso beltzera arte, 100 miloi biztanle baino gehiagoko zonalde rurala da.

## ❖ POPULAZIOAREN BILAKAERA ETA EGITURA

### DEMOGRAFIKOA: ➤ HAZKUNDE NATURALA:

Jaiotza tasak baino (*jaiotzak/ populazioa x 1000*) garrantzitsuagoa izaten da ugalkortasun tasa, hau da, zenbat haur emakumeko urte batean. 2,1 umeko eredua erabiltzen da jakiteko belaunaldiak berritzen diren. Hau da Europako arazo nagusia, belaunaldiak ez direla berritzen, esaterako Euskal Herrian 1,1-eko ugalkortasun tasa dago. Hau da hamarkadetan emandako bilakaera ugalkortasun tasari dagokionez:

- **60. hamarkada:** Herrialdeak belaunaldiak berritzen dituzte 4 ume izaten zutelarik nagusitasunean, Eskandinavian izan ezik; Emakumearen lan inkorporazioa dela baina baita ere bikoteek ez dituztelako hainbeste ume nahi 2-3 hurrekin bizi kalidade handiago ematen baita. Gainera badago eragiten duten beste faktore batzuk, esterako formakuntza eta ezkontza adinaren atzerapena.
- **70. hamarkada:** Herrialde germanoetan aplikatzen doaz belaunaldien berriztapenaren jaitsiera, esterako Alemania, Holanda, Belgika eta Ingalaterran
- **75 hamarkadan:** Frantzia
- **80 hamarkadan:** Italian
- **85 hamarkadan:** Espainian
- **90 hamarkadan:** Herri komunistek, Berlin harresia eroritakoan krisian sartu eta aldatuz belaunaldien berriztapena jaitsi egingo da, ez dagoelako ekonomikoki berriztatzerik

\*80-95 hamarkadetan gazteriaren langabezia emango da 90%-ean, krisia zela eta, batez ere industrializazio zonaldeetan Euskal Herrian adibidez.

Hazkunde naturalari dagokionez Europar Batasunak ere bere sailkapena egiten du:

- 1. Eredua Eskandinabiarrak:** Suezia, Dinamarka, Finlandia eta Noruegan ematen da. Bertako ugalkortasun tasa 60. hamarkadan 1,3-1,5-ekoa zen orain berriz 1,8-ra igo egin da. Zonalde haietan lana gazte guztientzat egotea beharrezkoa dela uste dute, horregatik 18 urte betetzean gehienak etxetik kanpo doaz gainera bertako zerga nahiko handiak dira. Ugalkortasun tasa ez da heltzen 2,1-era baino nahiko handiagoa da beste eredu batzuekin konparaturik, bertako emakumeek ez daukate haurdun gelditzearen beldur lana galtzeagatik edo diru falta izateagatik, horregatik nahiko "altua" da, gainera

hautzaindegiak daude gazteentzat, horrela hauek umeak izatera sustatzen dute.

**2. Europa erdialdeko eredia:** Holanda, Belgika, Britania Handia eta Frantzia zonaldeak sartzen dira. 70. hamarkadan 1,7-ko ugalkortasun tasa ematen zen, gaur egun hau ez da asko aldatu, ia berdin mantentzen da, baina bertako hazkunde naturala negatiboa da. Ugalkortasun tasa, altuenetarikoa izatez dakar esterako Frantzia emigrante nazionalizatu asko daudela eta horrek umeen hazkundera dakar.

**3. Alemaniako eredia:** 70. hamarkadan 1,4-ko ugalkortasun tasa zegoen, gaur egun ez da asko aldatu baina 1,5-era igo egin da. Hau igotzearen arrazoia Alemaniak noizbehinka Turkiatik jendea etortzera ahalbidetzen duelako izan daiteke.

**4. Erdialde mediterraniarraren eredia:** Espainia, Grezia, Italia eta Portugal zonaldeak dira. 80-85. hamarkadetan bertako ugalkortasun tasa 1,3-koa izan da nagusitasunean, gaur egun ere ia berdin mantentzen da. Ugalkortasun tasa baxu honen arazoa jubilazio eta lanbideetan nabarituko da gehien. Emigrazioak ez du dena salbatuko baina lagundu dezake.

**5. Ekialdetako herrialdeen eredia:** 90. hamarkadan 1,2-ko ugalkortasun tasa zuten orokorrean, gaur egun 1,4-ra igo egin da. Harresia erori eta gero sistema ekonomikoa aldatu eta krisi nabaria eman zen hainbat zonaldeetan, horregatik beherakada. Hauek dute ia ugalkortasun tasa baxuenak, hauek izango dira etorkizunean gehiago sufrituko dutenak.

➤ **EZKONTZAK ETA FAMILIA EREDU BERRIAK:**

60. hamarkadan ‰ 8-a ezkontzak ematen ziren, garai haietan oso tradizionalistak baitziren, erlijioa dela eta egiten ziren ezkontza ia denak. Azken finean, familia eredu kristau jarraitzen zuten ia Europa osoan, Eskandinavian izan ezik.

Gaur egun berriz, ezkontza kopurua ‰ 4,4-ra jaitsi da eta ezkontzeko adina berriz, 30 era igo. Gainera ezkontzearen arrazoia jada ez da tradizionalista baizik eta eskubide kontuak direla eta, batez ere haur eta emakumearentzat.

Dibortzioak berriz, ‰ 2-an ematen dira, hau da, ezkontzen direnen erdia banatu egiten da. Gero gainera badaude dibortzio mota desberdinak eta kasu desberdinak (*alardunak, semedun dibortzioa, semegabekoa...*)

➤ **HILKORTASUN TASA ETA BIZI ITXAROPENA:**

Hilkortasun tasa kalkulatzeko: hildakoak/populazioa x 1000

Kasu honetan bizi itxaropena ere badugu garrantzitsu, emakumeak 87

urteko bizi itxaropena daukate, gizonak berriz gutxiago, 77 urtekoa, horregatik bien arteko media 80 urteko bizi itxaropena da, hau izango da biztanleriaren batz besteko bizi itxaropena.

Herrien arteko desberdintasunak txikia dira baina desberdintasun gehienak osasun zerbitzuen arabera ematen dira.

Baina errealitate bat dugu tasak igo egin direla, arrazoi desberdinak daude hau azaltzeko:

- Osasun aurrerapenak eman dira, batez ere ume txikietan, genienez ahuleziarekin jaiotzekotan gaintu egin dute eta indartu egin dira, horrela 80 urtera iritzi
- Elbarritasunen tasa ere jaitsi egin da eta hauek konpondibideak dituzte gehiago iraunez, eta bizi itxaropena luzatuz.

Europar ez da jende askorik hiltzen, 5 milioi jaio eta 5 milioi hiltzen dira gutxi gora behera, horregatik hazkunde naturala parekoa edo negatiboa da gehienetan. Hau ekiditeko umeen tasa igo egin behar da, baina nola?

- Lana igoz, horrela ekonomikoki garatu egingo gara eta horrek independizazioa dakar
- Imigrazioak igoz

#### ➤ **MIGRAZIO MUGIMENDUAK:**

Imigrazioa gure aldekoa da, honi esker gure hazkunde hazte ari da, baina urteetan zehar migrazio mugimendu desberdinak eman dira: ● **60. hamarkadan:** Industrializazioa dela eta, emigrazio ugari eman ziren industrilizatutako gunetara, esaterako Alemania, Suiza eta Belgika %1-1,5 igo egin ziren

- **Gaur egun:** %10-ek imigratzen dute eta erdia Europearrak dira, besteak berriz kanpotarrak.

Gehienek Europako bananara imigratzen dute, lehenengo zona industrilizatueta, salbuespenak daudelarik (*Alemania, Suiza, Paris, Ingalaterra, Belgika...*). Baina, Tunez, Magreb, Marruekos, India, Pakistanetik... datoz gehien bat.

Gizonek imigratzen dute nagusitasunean, lan egin eta lortutako dirua familiei bidaltzeko eta hau bukatutakoan jatorrizko hirira bueltatzen dira. Lan gehienak eraikuntzan eta industrian ematen dira eta gutxi batzuetan turismoan.

Esan beharra dago egoera hori lehen ohikoa zela baina orain beraien nahiak aldatu direla, herrialde berrian bizitzeko grina edo beharra ikusiz. Orain, gizona asentatutakoan emakumea etorriko da eta familia sortuko dute bizileku berrian, horrela jaiotako umeak nazionalizatuak izango dira bertan, gure hazkundera igoz. Egia da ekonomikoki oso aberatsak ez direla, horregatik gehienetan guetoetan bizi izaten dira.

- **Ezaugarriak:**

- Datozen imigranteak 25 urte izan ohi dituzte, hau da, kotizazio garaian dago eta 67 urte izan arte lan egiten dute. Gainera bertakoek nahi ez dituzten lanak beteko dituzte, hau da, lan gogorrenak.
- Bertako herrien jarrera imigranteekiko ez da oso enpatikoa, askotan integrazio falta ematen da
  - Herrialde bakoitzak bere ohiturak ditu; beste herriekiko konbenioak alegia, haien multzoetan batzen dira, haien guetoak sortuz eta ber ohiturak ahal den einera jarraituz.



Hauek dira herrien arteko konbenioetako batzuk:

- Frantzia Magrebekin
- Alemania Turkiarekin
- Irlanda Poloniarekin
- Espainia latino amerikanoekin
- Atzerritarrek guk baino seme gehiago izaten dituzte, batez ere lehen belaunaldian, hemendik aurrera tasa jaisten doa.

- **Etorkizuna:**

Populazioa jubilatzeaz dagoenez, 50 milioi etorkin berri behar dira sistema egokitzeko. Ekialdeko emigranteak 7.15 milioi etorriko zirelakoan zeuden, baina ez dira hainbeste etorri eta gainera ez da jende gaztea, hau da, ez dute hazkunde guztiz igoko. Afrika beltza hoberenetariko aukera da; bere hazkundera Europa gainditu baitu, beraz hortik etorkizunaren hobekuntza ikus daiteke. baina Europak ahalbidetuko du ? Ez dago oso argi, baina uste da ezetz.

- **Prozesua:**

Esan bezala urteekin populazioa galtzen ari da Europan, 2040-2060 urte bitartean populazioaren %25 galduko da eta Euskal Herrian, are gehiago %50-a. Baina badago hazkundera arintzeko prozesua: Imigratioak asko izan ez arren %7-a igo egin du, batez ere horren %25-a gazteak eta haurrak direlako, bestalde badaude ere diru laguntzak.

- **Ondorioak:**

1. Pentsioak: Gazte gutxiago ari direnez lanean gutxiago kotizatzen da eta gainera bizi itxaropenaren adina handitu egin da. Beraz, gazteen gastuetatik aurrezten dena zaharrentzako da. Esan beharra dago gainera gazteen gastuak ez direla kasu guztietan jaitsi, hezkuntzan esaterako. Eta helduenak berriz, pentsioak, gora egin dute, askok zaintza behar dutelako eta; kasu hauetan gurasoek haien lanak uzten dituzte haiek laguntzeko.
2. Populazioaren erdia lanean: Nola ordainduko dugu sistema gure lanak ez badu diru nahikorik ematen hau egiteko, pentsioak pribatizatuko dira? Hori ahal da soluzioa?
3. Laboralak: Lanean ari diren gehiengoa zaharragoa da, 55 urteko media alegia, egia da esperientzia dutela, baina ez ahalmen fisikorik ezta formazio berria jasotzeko gaitasunik. Ondorioz enpresen produkzioa jaisten ari da eta gainera etorkizunean zergak eta pentsioak igo egingo dira.
4. Politika: Bozkutzen dutenen adina 55 urtekoa da beraz, haien bozketa pentsioen alde egiten dutenen aldekoak izango da, baita ere aldaketa gutxien egingo dutenen alde, hau da, kontserbadoreen aldekoa.

● **Hazkundera izango duten herrialdeak:**

1. Eskandinaviarra: Populazioaren jaitsiera lehen izan zutenak dira, baina proiektua gaztediari begira bultzatuz doa. 1,3tik 1,9-ra igaroz. Gainera emigrazioa kontrolatzen ari dira, honek gora eginez.
2. Europa erdialdea: Frantzia, Britania Handia, Holanda, Belgika... 1,7tik 1,8ra eta emigrazioak ere gora egin du. 3. Alemania: 1,4ean mantendu da eta emigrazioak gora egin du populazioa galduz.
4. Mediterraneanar eredia: 1,3 an dago eta imigrazioa ez da ia nabaritzen, populazioa galtzen ari dira, Espainian, 2000 urtean imigrazioak gora, hala ere populazioa galduko du.
5. Europa Ekialde Komunista: 1,5 an dago eta imigrazioak behera egin du.